



KLIKA EGITEA AUKERA BAT HARTZEA DA,  
EUSKARAREN AUKERA HARTZEA,  
HAUTUA EGITEA.

## HIK HASI-ren klika, 21. KORRIKAN

Hik Hasi-ren konpromiso nagusia euskal hezkuntza-sistema osoan kalitatezko heziketaren alde lan egitea da, euskaratik eta euskaraz. Horretarako:

- Euskal irakasleen informaziorako eta formaziorako topagune izateko konpromisoa berresten dugu. Informaziorako zutabe nagusia *hik hasi* aldizkaria dugu; formaziorako, berriz, prestakuntza jarraitua, aldikako jardunaldiak, Udako Topaketak, bidaia pedagogikoak, etab. antolatzen ditugu. Horietan guztietan euskara ardatz dugularik jarduteko konpromisoa sendotu nahi dugu.
- Eskolaz kanpoko heziketari ere —euskara oinarri izanik— garrantzia emateko konpromisoa berresten dugu. Horretarako, familiei zuzenduriko *Hazi Hezi* aldizkaria euskaraz eta kalitatez argitaratzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu batetik; bestetik, berriz, “OinHerri, Herri Hezitzailea” egitasmoan ere dinamizatzaile lanetan jarraitzeko nahia dugu, komunitate osoa izan dadin hezitzaile, horretarako zazpi balioaren gainean lan eginez: 1. Haurren kultura aitortzea eta errespetatzea. 2. Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko aukera eskaintzea. 3. Aniztasunean berdinean eta parekide izanez aritzea. 4. Ingurumenarekin bizitzen ikastea. 5. Ingurumen kulturala zaintzea. 6. Harremanetan, euskara lehenestea. 7. Elkarlanean aritzea eta auzolana sustatzea: komunitatean bizitzea.
- Berariaz, euskararen, euskal kulturaren eta euskal curriculumaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu. Horretarako, Euskal Herriko bestelako eragileekin elkarlanean jardunaz, adibidez, “Ikasle Euskaldun Eleaniztunak sortzen” edota orain dela urte eta erdi argitaratutako “Hezkuntza Proposamena” bezalako egitasmoak mahai gainean jarriz eta behar den ororekin partekatuz.